

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkide **Dani Maeztu Perezek**, indarrean den erregelamendua oinarri hartuta, ondoko **INTERPELAZIOA** aurkezten dio **Maria del Pilar Unzalu Perez de Eulate, Ingurumen sailburuari**.

### **ZIOA:**

Abenduaren 12an egindako Urdaibaiko biosfera- erreserbaren Patronatuaren batzarrean, besteak beste, oniritzia eman zitzaion aipatutako babesguneko Erabilera eta Kudeaketarako egitamu gidaria berraztertzeari.

Kontutan izanik, aipatutako egitamu gidariaren 7.artikuluak dioena, hau da, *“Eusko Jaurlaritzari dagokio, ingurugiro arloan aginpidea daukan Sailaren bitartez Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidari hau aldatzea eta berraztertzea, aurretiaz eragindako udalerriei eta Bizkaiko Foru Aldundiari kontsultatu beharko dielarik”*, Aralar legebiltzar taldeak hurrengo interpelazioa aurkeztu dio Ingurumen Sailburuari:

### **INTERPELAZIOA:**

Azal dezala zeintzuk diren Eusko Jaurlaritzaren ingurumen sailaren irizpideak, Urdaibaiko biosfera-erreserbaren Erabilera eta Kudeaketarako egitamu gidariaren berraztertoko.

**Gasteizen, 2009ko abenduaren 21ean**

**Dani Maeztu Perez**  
**Aralar taldeko legebiltzarkidea**